


**Euskadiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 43k garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute egunero eta % 11k bizikleta**

***Euskadiko gazteengan, garraio publiko kolektiboaren erabilera-maila handiagoa da Europako gazteengan baino. Bizikleta, ordea, gutxiago erabiltzen dute EAEko gazteek EB28koek baino.***

Mugikortasunaren Europar Astea (irailaren 16tik 22ra bitartean) amaitzen ari dela-eta, Euskadiko gazteek eta Europakoek (batez bestekoa) garraio bide iraunkorreri ematen dieten erabilera alderatu du Gazteen Euskal Behatokiak. Horretarako, bi datu-sortatan oinarritu da: batetik, Behatokiak berak 2012an EAEko 15 eta 24 urte bitarteko gazteei egindako 900 inkestatatik bildutako datuetan; eta, bestetik, Europako Batzordeak 2013ko abenduan Attitudes of Europeans towards urban mobility azterlanean argitaratutako datuetan.

Euskadiko 25 urtera arteko gazteen % 43k diote egunero erabiltzen dutela garraio bide kolektiboa. Ehuneko hori altuxeagoa da Europar Batasuna osatzen duten 28 Estatu eta talde bereko gazteena baino (% 38).

Bizikleta egunero darabiltenen ehuneko, ordea, apalxeagoa da Euskadiko gazteengan (% 11) Europako gazteengan baino (% 15).



Neskek gehiago darabiltzate garraio bide publiko kolektiboak mutilek baino (% 46 eta % 39, hurrenez hurren). Erabilera-mailarik altuena Bizkaian antzeman daiteke; 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 50ek diote egunero baliatzen dutela garraio bide publiko kolektiboa; Gipuzkoan, % 38k; eta Araban % 26k. Bizkaian, garraio bide publikoen erabilera-maila altua Bilboko metroari zor zaio. Izan ere, garraio bide hori ez dago beste lurraldeetan; gainera, Bizkaiko lurraldeko herririk jendetsuenetako batzuetara heltzen da metroa (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri...).

Garraio publiko kolektiboaren kasuan ez bezala, mutilek bizikleta maizago erabiltzen dute (% 14) neskek baino (% 7). Erabilera-maila handia du bizikletak Araban (% 21) eta Gipuzkoan (% 19), Bizkaiarekin alderatuta. Izan ere, Bizkaian ez da ia erabiltzen ohiko garraiobide gisa (% 3).

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

